# BEÑAT ETXEPARE

## HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

## SALA DE TEATRO PARA NIÑOS, NIÑAS Y JÓVENES

Temporada **2024 - 2025** *Denboraldia*



*Antolatzailea* / Organizador

*Babeslea* / Patrocinador

*Dirulaguntzaileak* / Subvencionan

*Laguntzaileak* / Colaboran

*Bazkidetza* / Asociada a

## IKUSLEA IZATEAREN ARTEA «ENTZUTE AKTIBOA, ERALDAKETAREN ERAGILE»

*Kaixo!*

*Hemen aurkezten dizuegun programazio eszenikoan, hainbat teknika eta poetika biltzen dituen antzerki-denboraldi zirraragarri batez gozatzera gonbidatzen zaituztegu.*

*Publikoak sortzeko eta prestatzeko proiektu esanguratsu honek lanean jarraitzen du gure haur eta gazteen eta Arte Eszenikoen arteko topaketa atsegina bultzatu, sostengatu eta bultzatzeko, alfabetatze artistikoan eta herritar gazteenen artean entzute adimendunaren garapenean laguntzeko helburuari jarraiki.*

*Aurten, «Entzute Aktiboaren» mundu liluragarrian murgiltzea proposatzen dizuegu, Goetheren hitzek inspiratuta: «Hitz egitea behar bat da, entzutea arte zehatza da.» Zer moduz tximeletak imitatuz ikasten badugu arte hau? Tximeletek, beren antena sentikorrekin, bibrazio sotilenak ere hautematen dituzte. Hemen aurkituko dituzuen proposamenekin, gure haur eta gazteek entzute findu bat garatzea bilatzen dugu, euren jakin-mina eta sormena aktibatu dezaten.*

***Entzutea, honetarako:***

- *Arte-sorkuntzek euren baitan dituzten enigmak argitzen **ikasteko.***
- *Nork bere emozioak **ezagutzeko.***
- *Gainerako ikusleekin batera **harritzeko** edo izandako esperientziarekin liluratzea*

*Entzuteko artearen bidez ezagutzeko eta ikasteko bidaia honetan lagun gaitzazuen gonbidatzen zaituztegu, nota, hitz eta mugimendu bakoitzaren bikaintasuna ospatuz.*

*Zuen zain gaude!*

## EL ARTE DE SER ESPECTADOR Y ESPECTADORA: «LA ESCUCHA ACTIVA COMO MOTOR DE TRANSFORMACIÓN»

¡Hola!

La que aquí os presentamos es una programación escénica en la que os invitamos a disfrutar de una emocionante temporada teatral que integra técnicas y poéticas diversas.

Este significativo proyecto de creación y formación de públicos continúa trabajando para alentar, sostener e impulsar el encuentro placentero de nuestros/as niños/as y jóvenes con las Artes Escénicas, atendiendo a su objetivo de contribuir a la alfabetización artística y al desarrollo de la escucha inteligente en la ciudadanía más joven.

Este año, os proponemos adentrarnos en el fascinante mundo de la «Escucha activa», inspirados por las palabras de Goethe: «Hablar es una necesidad, escuchar es un arte». ¿Qué tal si aprendemos este arte imitando a las mariposas? Las mariposas, con sus sensibles antenas, perciben incluso las vibraciones más sutiles. Con las propuestas que aquí encontraréis, buscamos que nuestros/as niños/as y jóvenes desarrollen una escucha afinada, para que activen su curiosidad y creatividad.

**Escuchar para:**

- **Aprender** a descifrar los enigmas que encierran las creaciones artísticas.
- **Descubrir** las emociones personales.
- **Sorprenderse** junto a los otros espectadores y espectadoras o maravillarse con la experiencia vivida.

Os invitamos a acompañarnos en este viaje de descubrimiento y aprendizaje a través del arte de escuchar, celebrando la excelencia en cada nota, cada palabra y cada movimiento.

¡Os esperamos!

## TOKIKO ERAKUNDEEKIN SORTUTAKO SARE KOLABORATIBOA. TOPA! PROIEKTUA ETA PANTA RHEI ANTZERKIA

*Beñat Etxepare Proiektuan uste dugu kolaborazioa sormen-motor bat dela, eta interakzioek eta talde-lanak emaitza aberasgarriagoak eta garrantzitsuagoak ematen dutela aitortzen dugu. Horregatik, garrantzitsuak diren tokiko bi erakundeekin egingo dugu lan denboraldi honetan.*

- ***Panta Rhei eskarmentu handiko Konpainia arabarra,*** *Idoia Ayestaran eta Emilio Fernández de Pinedok sortutakoa. Artista talde bat da, eta bere esperimentazio- eta ikerketa-lana umeekin eta objektu eta txontxongiloen erabilera eszenikoarekin lotuta dago.*
- ***Orain dela gutxi sortutako TOPA! proiektua.*** *Hiriko 5 erakundek (Arrakala Koop., Kalakalab, Parasite Kolektiboa, Pez Limbo eta Teklak) sustatutako proiektu bat da, eta bere jarduera profesionala Arte, Kultura eta Sormenaren esparru desberdinetan burutzen dute.*

## PROIEKTU ARTISTIKOEN EGOITZA

*Denboraldi honetan Beñat Etxepareren barruan egoilar den konpainia baten proiektu artistiko berri bat lagunduko dugu.*

*Beñat Etxepareren proiektuaren helburua komunitatearen eta antzerki konpainien ekimen sortzaileen artean lotura esanguratsua ezartzea da, elkartrukea eta elkar aberastea bultzatuz.*

## IKUSLERIA GARATZEA

*Ikusle-multzoak garatzeko, edozein alfabetatze egiteko bezala, tresna espezializatuak behar dira, ikasketa bultzatu eta kultur zabalkundea ahalbidetzeko. Beñat Etxepare Aretoan metodologia espezifikoa garatu dugu, COMEX izenekoa, bide berritzaileak proposatzen dituena eskoletako ikusleei kultur elikadura osasungarria emateko.*

## *RED COLABORATIVA CON ENTIDADES DEL TERRITORIO. PROYECTO TOPA! Y TEATRO PANTA RHEI*

Desde el Proyecto del Beñat Etxepare entendemos la colaboración como un motor creativo, reconociendo que la interacción y el trabajo en equipo generan resultados más enriquecedores y significativos. Por ello esta temporada colaboraremos con dos entidades significativas de ámbito local:

- **La veterana Compañía alavesa de teatro Panta Rhei**, fundada por Idoia Ayestaran y Emilio Fernández de Pinedo. Un equipo de artistas cuyo trabajo de experimentación e investigación está vinculado con la infancia y el uso escénico del objeto y del títere.
- **El recientemente creado Proyecto TOPA!**. Proyecto impulsado por 5 organizaciones de la ciudad (Arrakala Koop., Kalakalab, Parasite Kolektiboa, Pez Limbo y Teklak) que desarrollan su actividad profesional en distintos ámbitos de las Artes, la Cultura y la Creatividad.

## *RESIDENCIA DE PROYECTOS ARTÍSTICOS*

Esta temporada vamos a acompañar un nuevo proyecto artístico de una compañía en situación de residencia dentro del Beñat Etxepare.

El proyecto del Beñat Etxepare persigue establecer un vínculo significativo entre la comunidad y las iniciativas creativas de las compañías de teatro, propiciando el intercambio y el enriquecimiento mutuo.

## *DESARROLLO DE AUDIENCIAS*

El desarrollo de audiencias precisa, como toda alfabetización, de herramientas especializadas para impulsar el aprendizaje y posibilitar la divulgación cultural. En la Sala Beñat Etxepare hemos desarrollado una metodología específica denominada COMEX que propone caminos innovadores para la alimentación cultural saludable de las audiencias escolares.



## SORTU, INSPIRATU ETA ERALDATZEKO ARTE-JARDUERAK.

- ***KULTUR ETA GIZARTE-BARNERATZEA***

*Kultur eta gizarte-barneratzea egon dadin, beharrezkoa da dibertsitatearekin bat egiten duten eta pertsona guztiei balioa ematen zaien sistemak eta agertokiak garatzea, eta, horrez gain, ikastetxe bakoitzean inklusioa modu desberdin batean gerta daitekeela onartzea. Esperientzia esanguratsuak garatu nahi baditugu, kultur arloko esku-hartzeak pertsonalizatu beharra dago. Hala, kolektibo bakoitzari gizarte-eraldaketarako eta kultur hazkunderako tresna modura balioko dio.*

*Hiru ekintza-ildo proposatzen dira:*

***1. ildoa**: populazioaren zati handi bat gizarte-bazterketako arriskuan dagoen ikastetxeak.*

- *Hartzaileak: Haur Hezkuntzako irakasle-ikasleak.*
- *Ekintzak: Hiriko bi konpainiak, Panta Rhei eta Paraiso Antzerkia, 8 ikastetxetan era pertsonalizatuan esperientzia eszenikoaren garapena irakasten dute.*

***2. ildoa:** Bestelako gaitasunak dituzten kolektiboekin lanean diharduten egiturei zuzendua.*

- *Parte-hartzaileak: Zentro Okupazionalak, Autonomia Pertsonaleko Zentroak, Zereginak Ikasteko Ikasgelak eta Errehabilitazio Komunitarioko Zerbitzuak.*
- *Hartzaileak: Kolektibo horietako helduak eta gazteak.*
- *Ekintzak: Zuzeneko lana hezitzaileekin, eta erabiltzaileak programaziora gehitzea.*

***3. ildoa:** Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoen biztanleria-maila handia duten ikastetxeentzat.*

- *Hartzaileak: Lehen Hezkuntzako irakasleak.*
- *Ekintzak: Irakasleentzako prestakuntza. 4 prestakuntza-ordu, antzerkitik, dantzatik, performancetik eta ikus-entzunezko sorkuntzatik datozen metodologiak ezagutarazteko. Ikasgelako egunerokoan nahiz garatzen ari diren proiektu artistikoetan inplementatzeko dinamika erabilgarriak erraztuko dira. Plaza mugatuak, inskripzio-ordenaren arabera esleituak, kalteberatasun-egoeran dauden zentroei lehentasuna emanez. Diruz lagundutako prestakuntza, parte hartzen duten ikastetxeentzat kosturik gabea, Topa! proiektuarekin lankidetzan emana!*

## BITARTEKARITZA.

*Arte-hezkuntzan, beharrezkoak dira hezkuntza-diseinuzko uneak, zeinetan, irakasleen bizipen pertsonaletik abiatuta, esperientzia artistiko berriak eraiki edo marraztuko diren.*

*Artea eta ikastetxe bakoitzaren bizitza elkarrekin lotzea da xedea, baita kultura- eta hezkuntza-berrikuntzarako bide berriak sustatzea ere, Beñat Etxeare Antzokiak proposatutako arte-jardueratik abiapuntua.*

## *ACTIVIDADES ARTÍSTICAS PARA CREAR, INSPIRAR Y TRANSFORMAR.*

- **INCLUSIÓN CULTURAL Y SOCIAL**

Para que se manifieste una inclusión cultural y social es necesario desarrollar sistemas y escenarios que respondan a la diversidad y en donde se valore a todas las personas, además de reconocer que en cada centro escolar se pueden manifestar la inclusión de manera diferente. Si buscamos desarrollar experiencias significativas, la intervención cultural ha de personalizarse para que sirva a cada colectivo como herramienta de transformación social y de crecimiento cultural.

Se proponen tres líneas de acción:

**Línea 1:** Destinada a centros con un alto grado de población en riesgo de exclusión social.

- Destinatarios: Profesorado y alumnado del área de Educación Infantil.
- Acciones: Dos compañías de la ciudad, Panta Rhei y Teatro Paraíso, tutorizan de forma personalizada el desarrollo de una Experiencia Escénica en 8 centros educativos.

**Línea 2:** Destinada a estructuras que trabajan con colectivos con otras capacidades.

- Participantes: Centros Ocupacionales, Centro de Autonomía Personal, Aulas de Aprendizaje de Tareas y Servicio de Rehabilitación Comunitaria.
- Destinatarios: Adultos y jóvenes de estos colectivos.
- Acciones: Trabajo directo con los y las educadoras e incorporación a la programación de los y las usuarias.

**Línea 3:** Destinada a centros con un alto grado de población en riesgo de exclusión social.

- Destinatarios: Profesorado de Primaria.
- Acciones: Formación dirigida al profesorado. 4 horas formativas que tendrán como objetivo dar a conocer metodologías provenientes del teatro, la danza, la performance y la creación audiovisual. Se facilitarán dinámicas útiles para su implementación tanto en el día a día del aula como en posibles proyectos artísticos que se estén desarrollando. Plazas limitadas, asignadas por orden de inscripción, teniendo prioridad centros en situación de vulnerabilidad. Formación subvencionada, sin coste para los centros participantes, impartida en colaboración con Topa!

## *MEDIACIÓN.*

La educación artística necesita momentos de diseño educativo en los que, partiendo de la experiencia personal de los y las docentes, se construyan o dibujen nuevas experiencias artísticas.

El objetivo es vincular el Arte con la vida de cada centro educativo e impulsar nuevos caminos de innovación cultural y educativa, partiendo de la actividad artística propuesta por el Teatro Beñat-Etxepare.

*Lau motatako EKINTZAK proposatzen dira, edukiaren arabera sailkatuta:*

**1. «ESPERIENTZIA ARTISTIKOA IKASKUNTZAREN ERAGILE GISA» LANTEGIAK**

*2 lantegi praktiko egingo dira Bigarren Hezkuntzako irakasleekin, La Casa del Libro-n.*

- *Guapa – Urriak 17*
- *Libro de Buen Amor – Urtarrilak 23*

*Pedagogia artistikoko eta ikaskuntza kolektiboko esperientzia bat aktibatu nahi da, esperientzia eszeniko batean parte hartzearen inguruan. Kontenplazio- eta esperimentazio-prozesuak aktibatuko dira.*

**2. «JAKIN-MIN ARTISTIKOA ETA EMOZIOEN ADIERAZPENA» LANTEGIAK**

*La Casa del Libro-n tailerrak egingo dira programatutako ikuskizunetara joango diren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleekin. Hala, alfabetizazio kulturalarekin, ikus-entzuleen begirada sortzailearekin eta esperimentazio artistikoarekin lotutako gaiak jorratuko dira.*

- *MR. BO– urriak 24*
- *ARRAINAK BIHOTZEAN – azaroak 7*
- *NOMADAK – azaroak 28*
- *ATEAREN BESTALDEA – martxoak 6*
- *MAGIAREN IRAULTZA - martxoak 20*
- *EHUNA – maiatzak 8*

**3. VITAL-ANTZEKI. KULTURAK HAZTEN LAGUNTZEN DU**

*Proposamen honen helburua «Nomadak» esperientzia eszenikoan parte hartuko duten 3 urtetik 5 urtera arteko haurren familietan jarduera artistikoak bultzatzea da.*

*Gabonetan, Teatro Paraíso Konpainiaren «Nomadak» ikuskizunaren emanaldiak bukatzean, ikusleek gutun-azal bat jasoko dute eta gero etxean gurasoekin ireki beharko dute. Barruan gurasoentzako gutun bat eta opari bat topatuko dute. Gurasoentzako gutunek haurrek ikusitako ikuskizunari egingo diete erreferentzia eta, seme-alabekin jolasteko aproposa izango da. Horrela, haurren eta gurasoen arteko komunikazioa indartuko da antzerki-esperientziaz baliatuz, ikusle txikiek euren emozioak adieraz ditzaten sustatuko baita.*

*Ekintza hau Fundación Vital Fundazioarekin elkarlanean egiten da.*

**4. BELAUNALDIEN ARTEKO ENTZUKETA**

*Elkarrizketarako eta lankidetzarako gune bat aktibatzen dugu Gasteizko irakasleen belaunaldi berriekin; topaketa horien helburua proiektuaren balio-proposamena helaraztea izango da, baita irakasle gazteen beharrak eta ekarpenak entzutea ere, ikastetxeetan gertatzen ari den belaunaldi-erreleboari erantzunez.*

*Ekimen honek irakasle gazteekiko lotura sendotu nahi du, Beñat Etxepareren komunitatean integratuz eta haien ikuspegiek proiektua aberastu eta indartuko dutela ziurtatuz.*

Se proponen realizar cuatro tipos de ACCIONES diferenciadas según su contenido:

**1. TALLERES «LA EXPERIENCIA ARTÍSTICA COMO MOTOR DE APRENDIZAJE»**

Se realizarán 2 talleres prácticos con el profesorado de Educación Secundaria, en La Casa del Libro.

- Guapa – 17 de octubre
- Libro de Buen Amor – 23 enero

Se pretende activar una experiencia de pedagogía artística y aprendizaje colectivo en torno a la participación en una experiencia escénica. Se activarán procesos tanto de contemplación como de experimentación.

**2. TALLERES «LA CURIOSIDAD ARTÍSTICA Y EXPRESIÓN DE LAS EMOCIONES»**

Talleres en La Casa del Libro con el profesorado de Educación Primaria y de Educación Infantil que vaya a acudir a los espectáculos programados, abordando temas relacionados con la alfabetización cultural, la mirada creativa de los espectadores y espectadoras, y la experimentación artística.

- MR. BO– 24 de octubre
- ARRAINAK BIHOTZEAN – 7 de noviembre
- NOMADAK – 28 de noviembre
- ATEAREN BESTALDEA – 6 de marzo
- MAGIAREN IRAULTZA - 20 de marzo
- EHUNA – 8 de mayo

**3. VITAL-ANTZERKI. LA CULTURA AYUDA A CRECER**

El objetivo de esta propuesta es impulsar actividades artísticas en las familias de los niños y niñas de 3 a 5 años que van a participar en la experiencia escénica de «Nomadak».

En navidad, al finalizar las representaciones del espectáculo «Nomadak» de la compañía Teatro Paraíso, los y las espectadoras recibirán un sobre sorpresa que deberán abrir en casa con sus padres y madres. En el interior encontrarán una carta para los papás y mamás, y un regalo sorpresa. La carta dirigida a los padres y a las madres, hará referencia al espectáculo visto, además de invitarles a jugar con sus hijos o hijas. Se posibilitará así la comunicación entre los y las niñas y sus padres y madres, en relación a la experiencia teatral, impulsando la expresión de las emociones de las y los pequeños espectadores.

Esta actividad se realiza en colaboración con la Fundación Vital Fundazioa.

**4. ESCUCHA INTERGENERACIONAL**

Activamos un espacio de diálogo y colaboración con las nuevas generaciones de profesorado de Vitoria-Gasteiz; encuentros que tendrán el objetivo de trasladar la propuesta de valor del proyecto, así como de escuchar las necesidades y aportaciones del profesorado joven, respondiendo al relevo generacional que se está produciendo en los centros educativos.

Esta iniciativa pretende fortalecer la conexión con los/as docentes jóvenes, integrándolos/as en la comunidad del Beñat Etxepare y asegurando que sus perspectivas enriquezcan y fortalezcan el proyecto.

## KOMUNIKAZIOA, ARTEA ETA GIZARTEA

*Kultura eskuratzeko bideak demokratizatzea abiapuntuko helburutzat hartuta, erronka bat dugu: hura eskuratzeko aukerak benetakoak izatea, ikusle txiki eta gazteentzat batez ere. Kultura demokratizatzea kultur paradigma bat garatzea da, uler dezagun gizabanakoak ez direla ikusle edo kontsumitzaile huts, eta eragile aktiboak eta kulturaren sortzaileak eta garraiatzaileak ere badirela.*

**1. DENBORALDIAREN AURKEZPENA. AZTURA KULTURALAK ETA HEZKUNTZA-INGURUNEA.**

*Kurtso berri hau 2 topaketa komunitarioekin hasi nahi dugu, irakasleei Hezkuntza Artistikoko jardueren programa eta Beñat Etxepare Antzokiko programazio eszenikoa ezagutarazteko.*

*Helburua ikastetxe guztietan hiriko kultura-eskaintza erabiltzeko eta horretaz gozatzeko azturak sustatzea da.*

*Lehenengo topaketa komunitarioa irailaren 4ean, asteazkenean 12:00etan izango da. Bigarrena, irailaren 5ean, ostegunean 10:00etan izango da, biak Iparralde Gizarte Etxeko Larrun Aretoan.*

**2. DENBORALDIAN ZEHAR. MEZU KULTURALAK «EL CORREO» EGUNKARIAN**

*Eragile laguntzaile honek hilero gune bat ireki du jardueren garapena ikusarazteko eta herritarrei Arteei eta Kulturari lotutako hiri-proiektu baten balioa jakinarazteko.*

**3. DENBORALDIAREN AMAIERA. IKUSLEARI SARIAK**

*2024/2025 ikasturtean, Beñat Etxepare Ikusleentzako Sarien XXVI. edizioa antolatuko da.*

*Sariak denboraldi amaierako jaialdian emango dira. Bertako hainbat artista hartuko dute parte.*

*Aipatutako sarietan parte hartzeko, ikuskizunaren ondoren sariaren triptikoak (irakasleei emango zaizkienak) igorri beharko zaizkigu, bertan ikusitako ikuskizunari buruzko iritziak, irudiak, iradokizunak, kritikak, etab. azalduz. Gutunak honako helbide honetara bidali beharko dira:*

***Paraíso Púlsar Elk. Koop. Txikia***
*Hibridalab*
*Miguel de Unamuno Hiribidea, 1*
*Bulegoa | Oficina: L8*
*01006, Vitoria - Gasteiz*

## *COMUNICACIÓN, ARTE Y SOCIEDAD*

Desde el objetivo de democratizar el acceso a la cultura, estamos ante el reto de provocar un acceso efectivo a la misma, y sobre todo para los pequeños y jóvenes espectadores y espectadoras. Democratizar la cultura es desarrollar un paradigma cultural, en el que entendamos que los individuos no son solo meros espectadores o consumidores, sino que son también agentes activos, creadores y portadores de cultura.

**1. PRESENTACIÓN DE LA TEMPORADA. HÁBITOS CULTURALES Y ENTORNO EDUCATIVO.**

Queremos comenzar este nuevo curso con 2 encuentros comunitarios, invitando al profesorado a descubrir el programa de actividades de Educación Artística y la programación escénica del Teatro Beñat-Etxepare.

El objetivo es impulsar la creación de hábitos de uso y disfrute de la oferta cultural de la ciudad en cada uno de los centros escolares.

Se realizarán el miércoles 4 de Septiembre a las 12:00 horas y el jueves 5 de septiembre a las 10:00 horas, ambos en la Sala Larrún del Centro Cívico Iparralde.

**2. MENSAJES CULTURALES EN EL DIARIO «EL CORREO»**

Este agente colaborador ha abierto un espacio mensual para visibilizar el desarrollo de las actividades y comunicar a la ciudadanía el valor de un proyecto de ciudad ligado a las Artes y la Cultura.

**3. CIERRE DE LA TEMPORADA. PREMIOS AL ESPECTADOR Y ESPECTADORA**

Se convoca para el curso 2024/2025 la XXVI edición de los Premios Beñat Etxepare al espectador y espectadora.

Los premios se entregarán en la fiesta final de temporada. Esta contará con la intervención de diversos artistas locales.

Para participar en dichos premios, es necesario remitir después de la representación los trípticos del premio (que se facilitarán a los y las profesoras) incluyendo opiniones, imágenes, sugerencias, críticas, etc., respecto del espectáculo visto. Las cartas han de enviarse a:

**Paraíso Púlsar Elk. Koop. Txikia**
Hibridalab
Miguel de Unamuno Hiribidea, 1
Bulegoa | Oficina: L8
01006, Vitoria - Gasteiz

*Lau sari mota emango dira:*

- **Ikusleei:** *bost sari indibidual adin maila bakoitzeko, guztira 20 sari eskainiz. Sariak honako opari hauetaz daude osatuta: Vital Fundazioak eta Beñat Etxeparek opari bana emango dute, eta Gasteizko Udalak, Principal Antzokirako sarrera-txartelak. Baita, maila bakoitzarentzako beste sari berezi batzuk emango dira ere.*
- **Ikastetxeei:** *ikuslearen iritziaren inguruan lan interesgarriena egin duten Ikastetxeei zuzendutakoak. 3 sari emango dira, honako opari hauetaz osaturik: La Casa del Libro Liburudendaren liburu sorta bat eta Ikastetxeak egiten dituen jarduera eszenikoetan bitartekari baten laguntza, datorren ikasturtean, Teatro Paraisok emana.*
- **Irudi grafiko onenari:** *ikusle batek antzerkia irudikatuz egindako irudi grafiko onenari opari bat emango dio EITB-ek.*
- **Antzerki kritika hoberenari:** *DBH-ko ikasle batek egindako antzerki kritika hoberenari. El Correo egunkariak emandako saria.*

Se concederán cuatro tipos de premios:

- ***A los espectadores y espectadoras.*** Cinco premios individuales por cada nivel de edad hasta un total de 20 premios. Estos consistirán en un regalo de Fundación Vital Fundazioa, otro del Beñat Etxepare y entradas para el Teatro Principal aportadas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. También existirán varios premios finalistas por nivel con un regalo sorpresa.
- ***A los Centros Escolares*** que hayan realizado una labor más interesante en relación a la opinión del espectador y espectadora. Se concederán 3 premios consistentes en un lote de libros otorgado por la librería La Casa del Libro y un acompañamiento de un mediador o mediadora durante el próximo curso, en las actividades escénicas que realice el centro escolar, otorgado por Teatro Paraíso.
- ***A la mejor imagen gráfica*** realizada por un espectador o espectadora representando el teatro. Premio otorgado por EITB.
- ***A la mejor crítica teatral*** realizada por un alumno o alumna de ESO. Premio otorgado por el periódico El Correo.





*DBH-rako ikuskizuna*
Espectáculo para ESO

# EL MONO HABITADO-k
*aurkezten du* / presenta

*LANTEGIA IRAKASLEEKIN* / TALLER CON EL PROFESORADO
*Urriak 17* Octubre *-18:00*
*La Casa del Libro*
*Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira.*

## *¡GUAPA!*

| | |
|---|---|
| *Egilea* / Autor | **Raúl Camino** |
| *Zuzendaritza* / Dirección | **El mono habitado** |
| *Antzezleak* / Intérpretes | **Begoña Martín Treviño, Raúl Camino** |

*Ikusten ez den edertasunari buruzko ikuskizuna, ikusi gabeko pertsonei begiratzen dieten pertsonei buruzkoa, ezberdintasunari eta berdintasunari buruzkoa.*

*Argumentua Mary Anne Bevan emakumearen ingurukoa da, (1874) Londres. Erizaina ezkondu zen arte, laster hasi zen osasun arazoak izaten eta alargun geratu zen. Maryk* akromegalia *zuen, hau da, hazkundearen hormona gehiegi ekoiztea. Bere gorputza deformatzen hasten da eta lan guztietatik baztertzen dute. Familia mantentzeko, «fenomenoen ikuskizun» ospetsuetan erakutsi zen.*

*«¡Guapa!» ikuskizunean Mary, «munduko emakumerik itsusiena» bezala iragartzen zutena, eta emakume bizarduna, eszenatokira igotzen dira berriro bere istorioa kontatzeko, barre egiten eta gozatzen zuten emakumeak zirela, nahiak zituztela eta grinak pizten zituztela deskubritzeko. Emakume borrokalari honen irudia berreskuratzen du bere edertasuna, berea eta beste pertsona askorena aldarrikatzeko. Pertsonaia historikoek, banako arrotzek eta antzezleek berek hartzen dute hitza edertasunaz, agerikoaz eta ezkutuaz, hitz egiteko.*

*Ikuskizun bizia, emozionala eta zirraragarria. Damutu beharrean, gozatu, bizi, grinatu eta amesten duten pertsonaiekin, eta horrek ederrak egiten ditu.*

Un espectáculo sobre la belleza que no se ve, sobre personas que miran a personas sin verlas, sobre diferencia e igualdad.

El argumento gira en torno a la figura de Mary Anne Bevan, (1874) Londres. Enfermera hasta que se casó, pronto comenzó a tener problemas de salud, y además se queda viuda. Mary tenía *acromegalia*, que es la producción excesiva de la hormona del crecimiento. Su cuerpo comienza a deformarse por lo que es rechazada en todos los trabajos. Para mantener a su familia terminó exhibiéndose en los famosos «espectáculos de fenómenos»

En «¡Guapa!» Mary, a quien anunciaban como «la mujer más fea del mundo», y la mujer barbuda, vuelven a subirse al escenario para contar su historia, para descubrirnos que eran mujeres que reían y disfrutaban, que tenían deseos y despertaban pasiones. «¡Guapa!» recupera la imágen de esta mujer luchadora para reivindicar su belleza, la suya y la de otras muchas personas. Personajes históricos, individuos extraños y los propios intérpretes, van tomando la palabra para hablar de la belleza, la evidente y la oculta.

Un espectáculo vital, emocional y emocionante. Con personajes que, lejos de lamentarse, disfrutan, viven, se apasionan y sueñan, y eso... les hace bellos.

| | |
|---|---|
| *Hizkuntza* / Idioma | ***Gaztelaniaz* / Castellano** |
| *Beñat Etxepare Antzokian* | ***Urriak* 29, 30, 31 Octubre** |
| *Ordutegia* / Horario | **9:00 – 11:00** |
| *Iraupena* / Duración aprox. | **75 min** |





*Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. Ziklorako Ikuskizuna*
Espectáculo para Segundo y Tercer Ciclo de Educación Primaria

## MARIE DE JONGH TEATRO-k
*aurkezten du* / presenta

*LANTEGIA IRAKASLEEKIN* / TALLER CON EL PROFESORADO
*Urriak 24* Octubre – *18:00*
*La Casa del Libro*
*Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira.*

## *MR. BO*

*Egilea eta zuzendaritza* / Autor y dirección **Jokin Oregi**

*Antzezleak* / Intérpretes **Ana Martínez, Ana Meabe, Javier Renobales, Anduriña Zurutuza**

*«Mr Bo» maskara eta komedia uztartzen dituen Marie de Jonghen lan berria da. Hitzik gabe kontatutakoa. Nagusi bat eta hiru zerbitzari, boterearen miseria eta keriak azalerazteko jardunean. Betiere, umoretik. Izan ere horixe baita egitasmo honen gako eta erronka, komedia sustrai, enbor, adareta lore izatea; guztiok gozatzeko moduko fruitua emango badu.*

*Bo jaunak esaten dituen guztiak betetzera ohituta daude hiru zerbitzariak. Bizi osoa daramate nagusiaren, Bo jaunaren, agindupean, hura ume koskor zenetik. Batzuetan irudikatzen dute zer zitekeen mundua nagusiak eurak balira, zer den agintea norberaren esku izatea, eta ez beste inoren menpeko egotea. Jolas ere egiten dute nagusiaren rola hartuta, besteek haren zerbitzari plantak egiten dituzten bitartean.*

*Nagusia ume zela, zerbitzariek izan zuten Ez! esateko aukera, baina ez zuten egin, eta nagusia nagusikerian aritu da urte luzetan. Haien arteko harremana zerbitzupekoa da oso, menpekotasunekoa, baina, halako batean, Ez! esateko aukera berri bat sortu da...*

«Mr Bo» es el nuevo trabajo de Marie de Jongh en el que se combinan la máscara y el clown. Un espectáculo narrado sin palabras. Un Señor y sus tres sirvientes dejan aflorar las miserias del poder despótico. Siempre, desde el humor. Porque esa es la clave y el reto de este proyecto, que la comedia sea raíz, tronco, rama y flor; si es que va a dar un fruto que todos podamos disfrutar.

Los tres sirvientes están acostumbrados a cumplir con todo lo que dice el señor Bo. Llevan toda la vida a sus órdenes, desde que era un niño. A veces se imaginan lo que podía ser el mundo si ellos fueran los amos, lo que es tener el poder en sus propias manos y no depender de nadie más. También juegan asumiendo el rol del señor mientras los demás se hacen pasar por sus servidores.

Cuando el señor Bo era niño, los sirvientes tuvieron la oportunidad de decir ¡No!, pero no lo hicieron, y Bo ha ejercido la hegemonía durante años. Su relación es muy servicial, de dependencia, pero en un momento dado surge una nueva oportunidad de decir ¡No!

*Hizkuntza* / Idioma ***Hitzik gabe* / Sin palabras**

*Beñat Etxepare Antzokian* ***Azaroak* 5, 6, 7 Noviembre**

*Ordutegia* / Horario **9:45 - 11:30**

*Iraupena* / Duración aprox. **50 min**



**3**

ANTZOKIA / TEATRO:
Beñat Etxepare

*Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako Ikuskizuna*
Espectáculo para Primer Ciclo de Primaria

# MAR-MAR TEATRO-k

*aurkezten du* / presenta

*LANTEGIA IRAKASLEEKIN* / TALLER CON EL PROFESORADO
*Azaroak 7* Noviembre – *18:00*
*La Casa del Libro*
*Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira.*

## *ARRAINAK BIHOTZEAN*

| | |
|---|---|
| *Jatorrizko ideia eta poemak* / Idea original y poema | **Leire Bilbao** |
| *Zuzendaritza* / Dirección | **Getari Etxegarai eta Mar Mar Teatro** |
| *Dramaturgia* / Dramaturgia | **Mar Mar Teatro** |
| *Antzezleak* / Intérpretes | **Garoa Bugallo, Aritza Rodriguez, Maitane Serrano** |

*Mar-Mar Teatro diziplina anitzeko talde batek osatzen du, eta talde-sorkuntzan sinesten dute, antzerki-ikuskizunak sortzeko oinarri gisa. Horrela ulertzen dute antzerkia, talde-lan eder eta amaigabea.*

*Hau bere bigarren ikuskizuna da eta Max sarietarako izendatuta dago. Getari Etxegaraik zuzentzen du lana, Leire Bilbao idazle sarituaren jatorrizko ideiak eta poemak oinarri hartuta (2022ko Euskarazko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria).*

*«Martik ez daki non bizi diren beldurrak, hortaz lasai bizi da kresal usaina duen herri polit batean. Aita marinela du eta portuan, bere zain dagoen egun gris batean, ekaitz batek uretara jaurtitzen du. Nahitaezko bidaia hasiko du itsas hondoan zehar, horretarako arrainen eta beldurren hizkuntza ikasi behar badu ere».*

*Beti bihotzean ditugun beldurren metafora bat da, eta haiekin bizitzen ikasi behar da. Transmititzen du beldurrak gure parte direla, bizitzaren parte, eta beldur batzuk onak direla eta beste batzuk txarrak, baina beldur horiek ez dutela gure bizitzaz jabetu behar. Emozioak kudeatzen ikasteko bidaia poetikoa.*

Mar-Mar Teatro está formado por un equipo multidisciplinar que creen en la creación grupal como base para la creación de espectáculos teatrales. Así entienden sus integrantes el teatro, un hermoso e interminable trabajo en equipo.

Este es su segundo espectáculo y está nominado a los premios Max. La obra la dirige Getari Etxegarai a partir de ideas y poemas originales de la galardonada escritora Leire Bilbao (Premio Euskadi de Literatura Infantil y Juvenil en euskera en 2022)

«Marti no sabe dónde viven los miedos, vive tranquila en un bonito pueblo con olor a salitre. Su padre es marinero y pasa largo tiempo en el mar. Un día gris, de espera en el puerto, le sorprende una gran tormenta que la tirará al mar. Marti comenzará un viaje profundo a lo largo del fondo marino, aunque para ello tendrá que aprender el idioma de los peces y de los miedos.»

Se trata de una metáfora de los miedos que siempre tenemos en el corazón y que hay que aprender a vivir con ellos. Transmite que los miedos son parte de nosotros, de la vida y que algunos miedos son buenos y otros malos, pero que estos no se deben apoderar de nuestra vida. Un poético viaje a un aprendizaje de gestión de las emociones.

| | |
|---|---|
| *Hizkuntza* / Idioma | ***Euskaraz* / Euskera** |
| *Beñat Etxepare Antzokian* | ***Azaroak* 19, 20, 21 Noviembre** |
| *Ordutegia* / Horario | **9:45 - 11:30** |
| *Iraupena* / Duración aprox. | **50 min** |





